


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com


Andres Urzelai Biain

*Oñati,
Gipuzkoa
(1924-2005)*

Aurkibidea



Biografia



Oñatiko Arantzazu auzoko Soroaundieta baserrian jaio zen. Ezkondu zenean, Oñatira (herrira) joan zen bizitzera. Baserriko karobian karea askotan egin zuen eta bere anaiak karobi barruko arkuak egiten ere bazekien. Ikazkintza lanean ere aritua da eta azkenengoz 1989an Oñatiko Kilometroetan egin ziren txondorretan lanean jardun zuen beste batzuekin batera.

Zintak

ONA-003

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabaleta, Ander
- **Data:** 1998-01-01
- **Iraupena:** 21 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

ONA-030

- **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider
- **Data:**
- **Iraupena:** 95 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Laixan Euskara Elkartea

ONA-179

- **Proiektua:** Karobiak, txondorrek eta elurzuloak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Data:** 1994-10-01
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Bergarako Udala

ONA-180

- **Proiektua:** Karobiak, txondorrek eta elurzuloak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Data:** 1994-10-01
- **Iraupena:** 34 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Emalea:** Bergarako Udala

ONA-285

- **Proiektua:** Oñati Irratia
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1994-07-04
- **Iraupena:** 23 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Baserrietako karobiak

- **Erref:** ONA-179/002
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:00:10. **Bukatu:** 00:02:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserría » Baserríko lanak » Baserríari lotutako lanbideak

Laburpena:

Lehen etxe guztietan egiten ziren karobiak. Urtean bi-hiru bider erretzen ziren karobiak. Karobi bat baino gehiago baserri bakoitzean. Lur desberdinak.

Transkripzioa

- Karia eitten ibili ziñanian, zenbat karobi ezagutu ziñuzen? Zenbat euazen zu ibiltzen ziñan tokixan?

- Karobixak zenbat eozen? Askok. Ene! Zeatik etxe danetan eitten zan karobixa ta. Oin, karobi bat erreten zan bi bider edo hiru bider igual urtian, zeatik bata eitten ebenian, bestiak igual eitten eben.

- Behin baiño gehixaotan bai urtian, e?

- Karobi hartan bertan, baten? Bai. Ta karobi bat baiño gehixao baserri baikotxian be bai, e! Karobi batekin geldiketia eskasa izeten zan. Badakitzu zeatik daon hori ta zeatik dan? Leku batzuetatik bestera lurak die diferentziak. Hamen bertan da, hemendik hasi eta Bixenia artian dao bustindurrak. Ta bustindurra da oso gogorra. Bustindurrak, gaur balitza makiñiakin, jo-ta apurtu ta [isten dittue...] ta ez da ezebe pasaitten, baiña lehenaoko erreminta [harekin] ta lehenaoko behitxuekin han ez euen inddarrak horreik hola txikiketako. Ezta? Ta bota bihar izaten xaten karia hori samurketako. Baiña karia ez zan hortako, samurketako, bakarrik; da, karia botaten xakon lekuan, zerak, karamarruak-edo guk esaten xau, insektuak hiltteko hobia. Karia gastaitten hasi zanetik hasi zien babak [huts eitten], eta baserri askotan ereitten euen babia, baba-gorria, eta [halako... hartzera zoianian], ostruak gorriketan xaten ta ez euen barbarik hartzen! "Baiña zer da hau?" Karo, ezaun da, ze lurretan karia ez [dabe eitten]. Oseake, ba, zenbat karobi eozen? Behintzat bi etxetatik bat bai.

2. Karobien jabetza

- **Erref:** ONA-179/003
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:02:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobiaren jabeak baserritarrak. Herri-lurretan baserri askoren artean egindako karobia ere aurki zitekeen.

3. Karobi batek izaten zuen lana

- **Erref:** ONA-179/005
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:04:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobiak izaten zuen lana.

Transkripzioa

- Basuetan eitten zien, ba, egurra nola egoten zan han, ta harrixa, ta harrixa be bihar da izan erako harrixa. Oseake, karobixai erre onduan ez da komeni ifinttia karia eitteko harrixa. Karia eitteko harrixa ifintten baldin badozu, bera funditten da! Oseake, bera erreten da. Ta behin karobixa

eitten hasi ezkeru lan haundixa da karobi bat eittia; atxur hutsez ta esku hutsez ein bihar da. Arenarrixa da hobia.

- Beti da arenarrixa?
- Arenarrixa ez da erreten [...]
- Ez, baiña karobi guztietan dao arenarrixa edo egon leike beste materialen bat?
- Ba, egon leike puntetara edo zerera, berotasun gutxiao harrapaitten dabenera, baiña beheko erdixen, han behintzat bai.

4. Karobi bat egiteko eman behar ziren lehenengo urratsak

- **Erref:** ONA-179/006
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:04:52. **Bukatu:** 00:05:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Non egiten ziren karobiak. Zuloa egin behar izaten zen lehenengo.

Transkripzioa

- Karobixia bera eitteko lekua ze izaten zan, espeziala? Hau da, leku aproposa bihar zan...

- Ez, izaten zan terrenua normala. Terreno hortan eitten zan zulo bat goitik behera, erre ondoko zulo bat eitten zan. Eta hori... Ez [dao] urrin fan biharrik e! [...]

- Bai, baiña beti be, holan, lautada baten, ba, ezin, ez? Beti aprobetxatzen zan...

- Ez, hobe erripia. Zeatik badakizu? Azpittik egurra sua eitekua sartu biher xako beheraotik, eta hortik hasitta badaukozu karobixa eitten, ba, hemen daukozu [ederkixao], gero "a punto" daukozu hortik zera sartzeko, sua eitteko egurra sartzeko.

- Eta gaiñeko partera be, bueno...

- Igual-igual heltzen da. Suabe-suabe... Bai, bai, bai.

- Ondo heltzeko moduan, ez?

- Bai, bai, bai, bai.

- Nik leku askotan ikusi dot bide gaintxuetan be bai. Bidetik hobeto kargaitteko izango zan ala harrixa hobeto kargaitteko ala...?

- Bai, bai. Harrixa kargaitteko baiño [...] hortarako, su-egurra eruan eta su-egurra tolestau, oseake, ifiñi inguruan, eitteko leku hobia bide-eskiñan edo bidian edo... Handik, ba, norberak emoteko.

5. Karobiak erretzeko urteko sasoi egokiena

- **Erref:** ONA-179/007
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:05:54. **Bukatu:** 00:06:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Udaberrian egiten ziren. Neguan zergatik ez.

Transkripzioa

- Zein zan sasoirik onena karia eitteko?

- Ba, udabarrixan eitten zien [...]. Neguak badakitzu zer dakon?

Deskargaitteko denpora [...] txarra, zeatik karia, ba, sutan eitten dau hori, erreten, karia eitten [surik emonik]. Astelehenian letz sua emuten xako, ezta? [...] Egoten zan, astelehena, martizena, eguaztena ta eguena. Hiru egun ta gau bat, hiru egun ta lau gau edo lau gau ta hiru egun, lau egun ta hiru gau... hola eitten geben. Gero hiru bat egunian deskantsaitten egon bihar eben, oseake, hozketan, eskuekin etaraten zan ha dana ta. Ha gorittutakua eskuakin etaratzen zan. Ta negu partian egoten zana zan egualdi txarra. Hari mobitten baxakon ura, goitik eurixa eitten baldin baeben, izaten zan eskuetan ebalteko gauza txarra.

6. Karobia erretzearen inguruko azalpenak; eguraldi onaren garrantzia

- **Erref:** ONA-179/008
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:06:54. **Bukatu:** 00:07:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Zenbat denbora behar izaten zen erretzeko. Noiz atera behar da. Euriak kalte handia (gertatutako ipuin bat kontatzen hasten da, geroago jarraitzen du).

7. Karobia egiteko eguraldi egokiena

- **Erref:** ONA-179/010
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:08:04. **Bukatu:** 00:09:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Euria zegoenean zer egiten zuten. Zergatik egiten ziren udaberrian. Zein ingurutan egiten ziren gehiago. Lur buztintsua. Teileriak.

8. Karobien inguruko kontuak

- **Erref:** ONA-179/011
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:09:57. **Bukatu:** 00:10:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Behin karobia hustu eta gero, berriz kargatu zitekeen.

Transkripzioa

- Eta esan dozu lehen, hiru tanda edo hiru bider edo eitten zala karobi bardiñian.
- A! Bai. Ba hor...
- Horrek hirurak eingo zien udaberri inguruan?
- Bai, bai. Karobixak behin... Behin karobixak behin deskargau ezkerotzera kargaitteko gertu dao. Hurrengo ein bihar... Bai. [...] ezkerotzera ya bai. Zenbat eta agurua hobea geñiera. Hurrengo ein bihar ebenak, ba, harrixa ekarritza eukene, ezta? Ta harrixa ekarten eben ta ya behin deskargau ezkerotzera ez zan izaten egun asko. Zortzi egun pasatxo, hamar egun? [Nahiko zera] eukitten eben bakarrik, [karobixen okupatuta egotiaz].

9. Karobi klaseak; harri klaseak

- **Erref:** ONA-179/012
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:10:31. **Bukatu:** 00:12:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobi mota desberdinak. Harri klasea kontutan izan behar da karobia egiterakoan.

Transkripzioa

- Karia eitteko modu bat baiño gehixao ezautu dozu?
- Ez.
- Zuek zelan eitten ziñuen? Harrixa botata...?
- Bai.
- Harrixakin bakarrik, ezta?
- Bai.
- Egurrakin sekula ez dozu ezautu? Botata egurra, harrixa, egurra, harrixa...
- Ez.
- Holako karobirik hemen ez dao?
- Badia horreik, e!
- Kapetan, hola?
- Bai, bai. Horrek, badia hola, e! Bai. Eta [batek] orduan egoten ei dia, neuk ez dot ikusi, baiña, egoten ei dia behetik etaraten ta goitik sartzen harrixa. Hala egoten ei dia. Ikusi, ez dot nik ikusi,e!
- Hemen inguruan ez dao holakorik?
- Ez. Hemen ez da ein holako karobirik. Ez dou guk ezautu hemen.
- Ez?
- Ez, ez.
- Orduan, bakarrik harrixaz.
- Bai, bai. Harrixakin bakarrik. Harrixakin kargau... Harrixakin be kontuan euki bihar da, harri klasiak dao. Kareharrixak dia, baiña esaten xate hauts-harrixak, ta txarra hauts-harrixa tokeittia edo sartzeia. Ba, ezauketan dienak izaten dia arkua hartzen-ta dabitzenak, harri klasia, eta haren kontu haundixa euki bihar da arkua eitteko denporan, hori, halako haririk han ez sartzeia, zeatik karobixa erre baiño lehen, orduan hareik goriketan dienian,

erre eitten die ta hautsa eitten die. Tokaitten dia hauts-harrixak, e! Haik hautsa eitten die! Haik ez dia [ezebe].

- Zelakuak die?
- Ba, kareharrixan antzekuak die, e? Antzeko harrixa da, hori be.
- Eta haustu eitten dia?
- Bai. Haustu eitten dia, ta arkuan baldin badao, hausten dia ta "brau!", e? Adios! Ha fan zan!
- Bai, ta orduen hori [kapelioi] behera, ez?
- Ha behera doia. Ta han [ezin leike behian] sua eitteko lekua tapatzen xako dana ta kitto!
- Ta zuek igarri eitten ziñuen koloriaaittik edo?
- Bai, harrixari bai. Ni ez nao neu arkurik hartzen ibilitta sekula; nere anaia bai.
- Anaia zein?
- Basarrixan daona.

10. Kareak ateratako hautsa zelan ateratzen zen

- **Erref:** ONA-179/016
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:14:54. **Bukatu:** 00:18:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Hautsa zelan ateratzen zen.

Transkripzioa

- Ez, hautsa...

- A! Hautsa etarateko?

- Egurra erre ahala, ha garbittu ein bihar zan, ezta?

- Baiña... konsumidu eitten dau, e? Ondo tiraketan daben karobixa baldin bada, e, oseake, tirua ona [hartzen] baldin badau, konsumidu eitten dau. [Nola] berotasun haundixa dan oso, eitten dau konsumidu, ta nahikua izaten da haga batekin, burdiñazko haga batekin, hola puskat astindu eta... Euki bihar dana da kontuan erreten dabillenan larrei golpera emun, hori aprendizak askok eitten daue, emun puska bat eta gero bokau bat eitteko edo bokadillua eitteko edo... Hori da oso txarra, zeatik juntaitten dozu han pillia, e? eta zela, hori... han kalderia hotziketan dozu eta ez dau inddar hori eukitten. Ha hotziketan danian, kosta eitten da gero. Aldiko pittin-pittin, aldiko pittina emunda bakarrik inddartu bihar dau gero, e? Hori aprendizak eitten dauen lana [da].

- Bai. Dana dala, bazeukan karobixak...

- Baiña hautsa etarateko lekua baeukan, e?

- Bai., Zelakua zan?

- Zelakua zan? Ba, kañu bat izaten da. Oin tubuak sartu gotsan guk honi, [... honi].

- Barritzuta dao [...]?

- Bai. Baiña orduan ez euen tuboik! Orduan tubua karobixen zeraatik? Tuborik ez eben iñok pentsaitten erosterik eta dirurik, xentimorik be gastaitten. Ezta pentsau be ez! Eitten xakon kañua lurrian. Joten zan holako zanga bat, ezta? E? Ba! Tamaiño hontako zanga... Geiñetik egur batzuk [ebalten] zien, zohixak botaten zien han eta gero handik haga bateaz astinddu.

- Zohixa geiñetik tapaitteko?
- Bai. [...]
- Eta ze...? Hor pertsonia sartzen zan, hor barrutik?
- Ez, ez. Hondoraiño ez, e? hondoraiño ez.
- Baiña norbera sartzeko modukua zan orduan kañu hori?
- Ba, puskat bai sartuko zan, e? Baiña tirua hartzeko... Oin, berriz, [...]
- nahikua izaten da. Tubuak, hor daozen tubuak, tamaiño [modutako] zera dakoi hor sartuta daozenak. [...] Baiña nahikua izaten da, berak emuten xaon tiruakin astinketan badozu, "ffffuu", [bero dauela] berak eruaten dau.
- Bai, baiña dana dala, lehen hor kañu horretatik ze eitten zenduen? Tirua zan bakarrik ala hortik...
- Ez, ez, ez. Baitta hagiakin be bai e!
- Baiña hautsa atara [bihar...] geiñetik?
- Etaraten ahalegiña eitten zan zerian, baiña ondo [bazoen] karobixa ez dau eukitzen nezesidade haundiik, e?
- Ta biharra egon ezkeru?
- Biharra egon ezkeru, ba, ahal zana etara ein biher. Handik.
- Erabiltzen ziñuen eskoban bat edo?
- Ez, ez, ez, ez. Eskobia... han bero dao oso. Eskobia sutu eitten da. Ba, palarra, ezta? Palar zaharren bat, puntan ifintten xakon haga horri. E? Etara, harik eta erre artien, e?
- Segi! Palarriaz?
- Bai.
- Zerakin, ikazkintzan eitten dan [antzerakuakin eitten zan]?
- Bai, esaktamente. Harekin puskan bat [...], baiña ondo dabillenan ez da bihar izaten, e!
- Karobixak berak lurra han laban, labia edo, egurra erretzen dan leku horretan, ipintzen zotsazuen halako burdiñaik edo zeozer gero hautsa azpittik atara ahal izateko ala ez?
- Ez, ez.
- Ez? Osea, hautsa eta egurra ez zeuan separauta, ez?
- Ez, ez, ez, ez. Hautsik bapez. Edo... esan deidan...
- Burdiñaik.
- Burdiñaik.
- Burdiñaik edo holako parrillaik edo ez, ez jakon ezer ipintzen.
- Ez, ez, ez, ez.

11. Karobietan erabiltzen ziren erregaiak: egurra, ota

- **Erref:** ONA-179/017
- **Iraupena:** 0:04:52. **Hasi:** 00:18:21. **Bukatu:** 00:23:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Zer erretzen zen karea egiteko. Ota. Erabiltzen ziren tresnak.

12. Karobiaren erretze-lana

- **Erref:** ONA-179/018
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:23:13. **Bukatu:** 00:24:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Zenbat egunetan egoten zen erretzen. Zenbat egur sartu behar den. Gaua basoan pasatu behar.

13. Karobiak behar zuen egurraren inguruko azalpenak

- **Erref:** ONA-179/019
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:24:59. **Bukatu:** 00:27:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Narrak erabiltzen ziren egurra eramateko. Egur asko behar izaten zen. Zelako egurrak sartzen zituzten.

Transkripzioa

- Eta, hori, lehen esan doune, zenbat egur, zenbat burdikada, pentsatzen ziniuen aurretik?
- Bai, jakinian egoten dia, e? Bai, jakinian egoten da.
- Eta zelan kalkulatu zan, burdikadaka? Edo zelan?
- Ba, narrak kontatzen zien. Narrak [...], ba, burdixak ebalteko, hor etxe-onduen daoz paraje... bide estuak. Eta izaten zien narrak.
- Narrak zer da, lera moduko batzuk?
- Bai. Ez, lera modukoak ez, eurekin eitten zan narrak. Oseake, pago, ba, besuen tamaiñokua, ezta? Holakua. Harek lakutzen bat eukiko eben, zerien, egokixenak ifiñi azpittik eta haren gaiñera pillaketan zan holako pillo bat. Lotu kataiaz, korredizuan hartu ta...
- Eurekin ein halako karro moduko bat... Eurekin...
- Bai, eurekin. Ta hareik eruaten zien karobi-ondo hortara.
- Baiña zerekin? Idixekin ala...?
- Behixekin.
- Behixekin...
- Idirik oso gutxi [zeukan hemen] orduan, karretero ibiltten zien batzuk besteik ez. Oso idi gutxi euen. Gero bai. Gero [... zien behixekin]. Behixekin eitten euen [horreik] lana. Behixek eitten eben lan hori. Uooooo! [Behi...]
- Eta holako zenbat? Ez dakit, ehun edo... zenbat? Ala ezin da kalkulau hori?
- Ez, ez, ez, bada. Ez dakit. Uste dot hirurogei nar ziela. Fijo-fijo esateko ez nao.
- Bai, hirurogei bat bai, ezta? Zenbat egur, e?
- Bai, bai. Ba, denpora asko bihar izaten zan. Ta luzeeria, ba, lau-bost metrokuak, e? Txaria izaten zan. [...] esaten zan, baiña ya tamaiño modu hontako sendaerakuak. Tamaiño modu hontako sendaeria be bakarrik ez da ona batzutan.
- Zer zian herri-basuak?
- Ez, partikularrak. Partikularrak. Herri-basuetan ez zan eitten. Ta holako sendua bakarrik danian, bai, berotasuna be botaten daue ta eitten da

horrekin noixian behin, baiña pittin bat mehetxuauak hobeto zertzen xau. Aguruao hartu eitten [dau eze]. Sua hartu eitten dau, ba, e? Eta lehen esan dou ba, otia? Otiak... giro onian bihar, e? Giro onien dauen otiak gora su harek etara eraitten xao, zeatik eitten dau "bffuu!", sua bizixa eitten dau ta. Ta [harek] suak be karobixan alleau ein bihar dau gora danak erreko badia. Han su pittintxo bat eindda behian bakarrik [...] ez dia eitten.

14. Harriaren ezaugarriak zeintzuk ziren

- **Erref:** ONA-179/020
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:27:46. **Bukatu:** 00:29:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Botatzen zen harria zelakoa zen.

15. Karobiaren egitura

- **Erref:** ONA-179/021
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:30:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobiaren egitura. Harriak zelan ezartzen ziren karobia egiteko.

Transkripzioa

- Zelan eitten zan bobedia?
- Bobedia zela eitten zan? Ba, ez da erreza, e? Baiña eitten dabe. Hasten da harrixekin buelta danian, hor erredondo hortan; harri haundixak, lehelengotik ifiñi bihar dabe, dudarik barik. Bueltan-bueltan-bueltan-bueltan... harik eta atakian pareraiñoko hontan, hona artian ifintten dia harri haundixak. Gero harri haundi horrek kargaitten dia erdiz atzera beste harri batzukin, harri, oseake, borobillauak, ertzian ifintteko egokixak ez dien harrixak hairi kargau eitten xate ostian. Eta harri horren ostian pisu haundixaua nola [...] aurrian daukana baiño, berriz be aurrian ifintte xako aurrera datorren horri harriorri. Hurrengo harrixa ifintte xako...

16. Karobiaren egitura azaltzen du

- **Erref:** ONA-179/022
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:30:22. **Bukatu:** 00:31:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobiaren egitura.

Transkripzioa

- Eta, arenarrixa kanpoko partia bakarrik, osea, karobixa bera zan arenarrixa, baiña bobedia ya... kareaitza.
- Bai, bai, bai, bai. Kareaitza. Dana, dana, dana kareaitza.
- Eta zelan amaitzen zan? Hori arkuori zelan amaitzen zan? Zerekin?
- Atzenian kiltzia sartzen xako.
- Zer sartzen jakon?
- Kiltzia...
- Kiltzia? Ba, arku bat zela da, ba, akabauta... Zuk ikusi dittuzu Oñatiko Unibersidadian makiña bat [...], ezta? Faten da eiñaz, eiñaz, eiñaz hemendik gora, ezta? Eiñaz, eiñaz, eiñaz, eiñaz, atzenian allegetan da bat bakarrik kabittera. Hor ifintten da bera kabitten, ez dana, ta preso geldiketan da.
- Kiltzarrixa.
- Kiltzarrixa esaten xako.
- Zeuk zela esaten dozu, kiltzia ala...?
- Kiltzarrixa.
- Kiltzarrixa esaten dozu?
- Bai.
- Ba, bixetara be igual, ezta?
- Bai, kiltzia. Haxe da [... gordeitten] dabena ta...

17. Karobigintzaren inguruko anekdota

- **Erref:** ONA-179/024
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:31:36. **Bukatu:** 00:33:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Anekdota bat kontatzen du.

18. Karobiaren egitura

- **Erref:** ONA-179/026
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:33:50. **Bukatu:** 00:35:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobiaren egitura.

19. Harriaren inguruko azalpenak; harrijoleak

- **Erref:** ONA-179/028
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:36:34. **Bukatu:** 00:38:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Harria nondik ekartzen zen. Anaia harria ateratzen ibilitakoa. Zelan ateratzen zen; tresnak, dinamita. Harrijoleak.</p>

20. Harria karobira zelan eramaten zen; neurriak

- **Erref:** ONA-179/029
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:38:38. **Bukatu:** 00:41:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Harria zelan eramaten zen karobira. Gurdiak zelakoak izaten ziren. Karea arrobaka neurtzen zen.

21. Harria karobira zelan, zenbat sartzen zen

- **Erref:** ONA-179/030
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:41:18. **Bukatu:** 00:42:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Zenbat harri behar izaten zen; nola sartzen ziren karobian erretzeko.

22. Karobia egiteko toki egokia

- **Erref:** ONA-179/032
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:42:36. **Bukatu:** 00:43:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Karobiak toki ederra behar izaten zuen inguruan.

23. Karobiari sua eman

- **Erref:** ONA-179/033
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:43:27. **Bukatu:** 00:44:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobiari sua emateko zer erabiltzen zuten.

Transkripzioa

- Sua emoteko zer erabiltzen ziñuen? Brasia edo eitten ziñuen kanpuan, edo zelan... lehelengo sua?
- Sua? Bai, ba, sua emuteko oso erreza izaten da pagua, hori, ainportutakua, erdi ustel... Ustela ez, eta ainporratutakua esaten xako. Ta gero illua eukitten dau paguak behin usteldutakuan illua eukitten dau ta ha illua sikua baldin bada, ez da ez ainporra eta ez egurra. E? Hor bixen bittartian dauen zer bat da. Hak sua segiduan hartzen dau. Ta berez gero inddartuaz, inddartuaz, inddartuaz, harek tirua eukitten dau behetik gora. Tximinixiak nola eukitten dau tirua? Igual-igual. Kabida harek. Ta han bertan tirua nola dauen, berak [ein...].
- Ta lastua edo bedar sikua edo...?
- Ez, ez.
- Ez? Holakorik ez...?
- Ez. Ez da egoten horren zerik.

24. Karobigintza auzolanean

- **Erref:** ONA-179/034
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:44:22. **Bukatu:** 00:46:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Zenbat lagun jarduten zuten lanean. Auzolana.

25. Karegintza

- **Erref:** ONA-179/035
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:46:02. **Bukatu:** 00:48:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karea eginda zegoela zelan igartzen zuten.

Transkripzioa

- Karia einda zeuala zelan igartzen zan?
- Karia eindra euala igarten xako, ba, keia be ez dau botaten baltza. Botaten dau ya bestelako... keia basuan urteten daben lekukua eta gaiñian, harrixak berak emuten dau sua eitten dabela. Sua egoten da, gaiñian sua, e? Garra egoten da, e! "Fi-fi-fi-fi..."
- Hemen gaiñian, ezta, esaten dozu?

- Bai, hemen gaiñian.
 - Eta zer da, beste kolore batekua?
 - Bai.
 - Hola urdinskia edo...?
 - Bai, hola. Hola izaten da sua. "Fi-fi-fi-fi..." Hola [...]. Hau danau ez da eitten, e? Dan-dan-dana ez da [eingo hor], e, karia. Hemen gordiñak geldiketan dia. Haik e... Hor egoten dianak karobi eskiñetan hor dao horrek ondio be. Karobi eskiña danetan dao holakuak. Eurak ezaun dabe sutan egondakuak diena.
 - Ondo erre baekuak?
 - Ondo erre baekuak, bai.
 - Horreri zeozelan, izenen bat edo badauke? Hori erre bako...
 - Txondorrian illinttak dia, baiña... Honek gordiñak...
 - Hemen ez... gordiñak?
 - Gordiñak. Bai. Ta beste... lehen esan doun hauts-harrixak, berriz, harek [deseindu] eitten die. Harek ez dia ezauketan. Honeik bai, honeik gordiñak die. Gordin geratutakuak.
 - Eta iños pentsau dozu horrek harri pilluorrek, kanpora ikusten dan harri pilluorrek, muskar koloria hartzen dabela edo?
 - Esaktamente. Bai.
 - Bai?
 - Bai.
 - Holan esaten dozu?
 - Bai. Hori, hori, hori bai.
 - Ta ze kolore da hori?
 - Muskarren koloria? Ba, berdia, berde-horiska... hola eitten da. Ba, muskerra.
 - Ta holan ikusten da? Holako koloria ikusten jako berai harri pilluai?
 - Bai! Erreten danian? Bai! Bai, bai, bai. Ta ya, ba, behin hori [erretutakuan], ba, su-egurra zela dauen ta baldin badao, ba, ordubete bat edo bi edo gehixaoatik, ba, igual eitten xako emun. Ta gero lehelenguan, ba, karobixak oso [zeharka], azpittik hola beittu arkuari ta dao harri-muturra han, han huekua, bestia... takarraua. Ta atzenian ya ikusten xako arkua be, dana ikusten da liso-liso-liso, [...-tuta], lisotuta han daona gaztaia letz [ya ikusten da], liso-liso-liso. Ya eindda. Liso, "más bien" zuri ikusten da. Burdiña be "a mil doscientos grados"-era beroketan danian zurittu eitten da, e, ez gorittu, ez hau gorrixau. Burdiña be zurittu eitten da ta harrixa be bai.
 - Harrixa be zurittu...

26. Karearen inguruko azalpenak

- **Erref:** ONA-179/037
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:49:12. **Bukatu:** 00:50:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karea nondik ateratzen da.

Transkripzioa

- Karia nundik ataratzen da?
- E?

- Nundik ataratzen da karia?

- Karia goittik, hemen goittik. Hemen dauen karia be, hemen goittik etaraten da dana. Banastatxuak [...] eta pisua, saltzekua dana, han egoten da banasta bat, [...] pisua, leku fijuari ifinita. Sei arrua banastako izaten da.

- Sei arrua?

- Bai.

- Ta gero berua egongo zan, ba, zera, banastara sartzeko...

- Bai, bai, bai, bai. Eskuetan aguantaitteko baiño, askotan, beruak egoten die. Baiña kanpora [etara orduko] hotzitzen da, e? Eskuekin [oraketan holan]... Oin, urak ikutu ta "fraa!" eitten baldin badau, ha berua izaten da orduan, e! Holako kare trosko bat etaraten dozu karobittik, ezta, ta eskuetan aguantau eitten dozu. Baiña hor itxi ta hor urak ikuketan baldin baxao ta "fraa!", orduan eitten dau, urak [ikuketan] xaonian, zertu eitten da, nasaittu edo apurtu. Ha orduan berua izaten da, e?

27. Karetegia

- **Erref:** ONA-179/039
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:50:23. **Bukatu:** 00:53:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Etixerako izaten zen karearekin zer egiten zuten. Baserrian karetegia gordetzen zen.

28. Baserrietako ohitura zaharrak

- **Erref:** ONA-179/042
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:55:31. **Bukatu:** 00:56:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Ohitura zaharrak. Gabonetan baserrietan ardotan ogi koskorra sartzen zen.

Transkripzioa

- Bai, hori izango zan... ez dakit, e? Baiña guk hori gabonetan eitten douna zan, lehenao gabonetan eitten zan. Ardauari sartzen xakon, ba, baserriko ogi mutur bat, koskorra izan zeilla, ezta? Ogi koskor bat. [Motxorra] ez, koskorra izango da hori! Zeuk esaten dozuna... E?

- Ta koskorra zer da? Hori sartzia...?

- Ba, holako ogi mutur bat.

- Ta nun sartzen zan?

- Eitten zan, brasatan beroketan zan, burduntzixan sartu eta puska bat baltzittu arte eitten [egon hori] ta sartzen xakon ardauari ta [...].

- Ardautan?
- Bai, pitxarkada bat ardautan.
- A! Pitxarrian...
- Pitxarrian ardautan sartzen zan ta gero puskaten tapauta euki ta gero eran eitten zan. Ta gero ha jan eitten zan.
- Ta horrek ze izen dauka?
- Horrek e... zela esaten xakon? Horrek izen bat eukan... Hori gabonetan [...] geuk be etxien.
- Bueno, bai, akordauko zara...

29. Karearen erabilera soroetan

- **Erref:** ONA-179/045
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:57:54. **Bukatu:** 01:01:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Zenbatero botatzen zitzaion karea lurrari. Urtero-urtero. Zelan botatzen zen. Lurra lantzeko tresnak.

Transkripzioa

- Ta urtero edo bi urtetik behin ala noiz botatzen zan karia?
- Bota? Urtero. Bai, bai. Artuari edo [botatzen danian] urtero. Urte danetan.
- Eta zelan botatzen zan soluan?
- Hori, ba, guk sitsa nahasketan gontsan. Lehen esan douna, horrek, burdixa... sitsa [kargaitteko be] burdixa izaten zan, behixekin eruten zana, burdixan hondarrera botaten zan hola sits puska bat eta gero sartzen zan burdixa zerera, karia euan lekura eta handik edo paliakin edo [nahastiakin] handik hartu ta "ra!", "ra!" zeren gaiñera, burdixen gaiñera, sitsen gaiñera botatzen zan [haura]. Gero deskargaitteko denporan, gero hari be gaiñera botatzen xakon atzera sitsa, ezta? Gero deskargaitteko denporan bera nahasketan da. Zuk hemendik puska bat [kaskua hola husten dozu pillara] ta ha entreke deskargaitten da, entrekete berriz [nahasten hasten da] bera nahikua nahasketan da. Sitsakin batera, sitsak zurittu eitten dau, ba! Sitsari berari nola pegau eitten xakon ba...
- Berton...
- Ez dako halako nahasketa partikularrik, masia eitteko areia ta porlanan moduan nahastu biharrik-eta ez dau eukitten.
- Bota bertan ta...
- Sitsa lehelengo bota ta gero erdixan kare puska bat bota, [... baten edo], eta gaiñetik sitsa berriz eta hori deskargaitteko denporan nahikua nahasketan da. Atxurra edo [...] eta deskargaitten da soluan ta harekin deskargaitten da. Ondo [...] da.
- Zerekin deskargatzen da sitsa?
- Atxurra edo ittuatxurra. [...] ta harekin deskargau orduko...
- Atxurra baiño gehixao erabiltzen ziñuen...
- Bai, ittuatxurra.
- Zelan?
- Ittuatxurra. Hori ein orduko, ba, nahikua nahastuta jarten zan, karia ta sitsa. Beste partikularreko zerik, nahasketarik, ez xakon eitten.

- Eta lurra? Lurrian bertan zelan nahasten zan? Zerekin? Ze erabiltzen ziñuen?
- Sardiakin zabaldu eitten zien. Burdittik soluan eitten zien holako pilluak. E? Hola, ipiñi hor, ipiñi hor, hau be bai, hemen be bai... gero sisardia esaten da beste bat, harekin fan ta zabaldu.

30. Karobiak; karearen erabilera

- **Erref:** ONA-180/002
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:02:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Arotzak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Karobiak egiteko orduan erabiltzen ziren tresnak. Kare a zertarako erabiltzen zen: etxeak egiteko; sorooan botatzeko...

31. Karearen erabilera

- **Erref:** ONA-180/003
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Batzuk errekan arrainak harrapatzeko karea botatzen zuten uretara. Gaztaina-azalak ere putzu batera botaz gero, arrainak laster tontotzen omen ziren. Kare a sorooan erabiltzen zen, kokoak hiltzeko. Korta garbitzeko ere oso ona zen.</p>

32. Kare a

- **Erref:** ONA-180/004
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:06:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karearekin zerikusia duen gertaera.

33. Kare a; arriskua

- **Erref:** ONA-180/005
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:06:38. **Bukatu:** 00:09:08

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karearekin kontu handia eduki behar izaten zen; arriskutsua. Horren adibide den gertaera bat kontatzen du.

34. Karobia

- **Erref:** ONA-180/006
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:09:08. **Bukatu:** 00:12:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karea egitea, ikatza egitea baino lan gogorragoa. Lehenengo 3 egunetan etengabe zaintzen egon behar izaten zen karobia.

35. Karearen erabilera

- **Erref:** ONA-180/007
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:12:44. **Bukatu:** 00:13:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Ganadu gaixo bat edukiz gero, karea erabiltzen zen desinfektatzeko.</p>

36. Karearen erabilera

- **Erref:** ONA-180/008
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:13:59. **Bukatu:** 00:16:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

<p>Hezurren minarendako karea ur beroarekin nahastu eta lurrun hori hartzen zuten batzuek.</p>

37. Azkenengo karobiak

- **Erref:** ONA-180/009
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:16:14. **Bukatu:** 00:18:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Azkenengo karobiak, 1950.hamarkadan. Gazteak lantegietara; bizimodu aldaketa.

38. Ikatzairen gainbehera

- **Erref:** ONA-180/010
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:18:04. **Bukatu:** 00:18:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikatzak urte batzuk gehiago iraun zuen.

39. Karobiaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ONA-180/012
- **Iraupena:** 0:05:50. **Hasi:** 00:19:29. **Bukatu:** 00:25:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Tresnak. Egurra sartu behar izaten zaio karobiari; egurra baino gehiago abarra. Su-hila; garrik gabeko sua. Hori ez da komeni karobirako. Txara eta abarrak. "Tantaixa", pago-egurrari esaten zaio. "Pago-linderuak". Pagoa lepatu.

40. Karobiaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ONA-180/014
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:25:54. **Bukatu:** 00:27:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Baserritarrak badaki karobia erretzeko zein den egur egokiena. Basoa jo, txara jo esaten zaio egurra mozteari.

41. Karobiaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ONA-180/015
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:27:19. **Bukatu:** 00:30:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Adarra eta abarra. Zuhaitz adartsua. "Pago-sastrapak", adartsuak dira. Karobiakugarra behar du eta abarrak izaten dira egokienak erretzeko.

42. Karobiak; ikazkintza

- **Erref:** ONA-180/016
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:30:13. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobia erretzen zegoen bitartean zer jaten zuten. Ikazkintza.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com